

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Garraio Partzuergoa**

**«Bizkaiko Garraio Partzuergoaren tituluen erabiltzaileei bidaiari-garraio publikoko zerbitzua emateko tasak arautzen dituen zerga-Ordenantza» ren aldaketaren hasierako onespeneren iragarkia.**

Bizkaiko Garraio Partzuergoaren Kontseilu Nagusiak, 2021eko abenduaren 1ean egindako bileran, hasieran onetsi du «Bizkaiko Garraio Partzuergoaren tituluen erabiltzaileei bidaiari-garraio publikoko zerbitzua emateko tasak arautzen dituen zerga-ordenantzaren» aldaketa. Espedientea jendaurrean jarri da, iragarki hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuz. Horrela, hogeita hamar (30) eguneko epean, iragarkia argitaratu den egunetik aurrera zenbatuta, interesdunek nahi dituzten erreklamazioak, zioen agerpenak edo iradokizunak aurkeztu ahal izango dituzte.

Jendaurrean azaltzeko epea amaitu ondoren, Kontseilu Nagusiak bidezko behin betiko akordioak hartuko ditu, aurkezturiko erreklamazio eta iradokizunak ebatziz. Bat ere aurkeztuko ez balitz, ordura arte behin behinekoa izandako akordioa, behin betiko onartutzat hartuko da.

Nolanahi ere, aurreko atalean adierazitako behin betiko akordioa, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, Ordenantzaren aldaketaren testu osoarekin batera.

Bilbon, 2021eko abenduaren 1ean.—Zuzendari Nagusia, Gorka Ugalde Martínez